

Antimarxista eta sozial-demokrata omen...

TXILLARDEGI MINTZO


Euskal politik indarren egoera eta batasunaz

LUIS A. ARANBERRI

ESB-ko mahai batetan egin du Txillardegik, Hego Euskal Herrira etorri ondoko lehen jendaurreko agerpena. Oñatin egin ere, hirurehundaka entzuleren aurrean.

Iharduna amaitu bezain laster honako elkarrizketa azkarra izan dugu, bapatean, alde aurretiko prestapenik gabe.

Alderdi edo talde politiko bat baino, Jose Luis Alvarez bera dugu protagonista.



● Edozein modutan, ESB-ren barruan dauden batzuk marxistatzat azaltzen dute publikoki beren burua...

DOGMARIK EZ

—Marxismoa kapitalaren kritikarik zorrotzena den aldetik, ni ere marxista naiz. Baina instrumentu bezala, inola ere erlijio gisa. ESB-ren barruan, batzuentzat marxismoa fundamental da, eta beste batzuentzat ez horrenbeste. Dena den, ESB bera, erakunde bezala, laiko da honetaz. ESB-k autogestiozko sozialismo bat proposatzen du, dogmarik gabe, askatasunezko gizarte anizkor batetan.

● Txillardegik sozial-demokrata omen?

—Badakit deitura hori halako gutiespeneko zentzu batez aipatu izaten dela, baina neri ez dit adjetibu horrek ikaririk ematen. Matiazio kontua izan daiteke, eta ez naiz lotsa.

JENDEA EZ DA STOKOLMOREN BILDUR

Sozial-demokrazia burgesiaren inte-

ESB barruan ari naiz. Bion artean sei-zazpi urtetan BRANKA ateratzen ihardun nuen, baina beti linea batean.

Ni ezik, ETA da aldatu dena, eta eskubide osoa izan du, eta du, noski.

● Zer esan Txillardegiren antimarxismoaz?

—Ez da hau, hemen eta hitz gutitan azaltzeko gaia. ZABAL aldizkariaren azken alean agertarazi berri dut neurri posizioa.

XIX MENDEKO MODELUA

Marxismoak gauza onak eta txarrak ditu. Baina gaur egun «marxistatzat» jotzen duten hori ez naiz ni. Marxen modelua aproposena zitekeen XIX mendean eta berak ezagutu zuen gizartean, baina honek ez du frogatzen munduaren historia klase burrukaren historia denik.

Historiaren faktorerik nagusia ekonomia dela segurtatzeka dugu. Badirudi, esate baterako, Erdi Aroan erlijio problemak ekonomiazkoekin baino eragin gehiago zutela. Eta totemismoan eta milaka eta milaka urtetan, sexual arazoa, aginte egarria, nazio problema eta beste, nabarmen izan dira.

Lehen esan bezala, Marxen modelua aukerakoena izan zitekeen berak ezagutu zuen gizartearentzat, baina garai eta egoera guztietara eramatea extrapolazio bat izan daiteke. Nolabait esateko, gaur egun Euskal Herrian, nazio problema klase problema baino larriagoa dela uste dut. Honetaz badirudi Marx tronpatu egin zela.

● Zuk bilatu ala berek bilatu zaituzte, Jose Luis?

—...? Elkar bilatu dugu. Nik ETA 1967 urtean utzi nuen, ETAk Krutwig-en hildoa hartu zuenean. Geroztik, BRANKA-ren inguruan mugitu naiz, eta azken urteotan AINTZINA mamitu nahirik.

Hau honela, BRANKA aldizkaria berriro atera ala ez Donapaleun egin ziren biltzarreen ondotik, ESB-ren posibilitatea suertatu zen, eta hona hemen non negoen. EHAS-koa aurretik planteaturik nuen ordurako, eta azkenik bidezkoago iruditu zitzaidan momentu haretan ESB.

● Herri mailan, Txillardegiren «in-konstantzia» aipatu izaten da. Hara-hona omen zabiltza, kriteriorik finkatu gabe.

BETI LINEA BATEAN

—Iritzi guztiak errespetagarri zaitkit, baina ni ez nago horrekin ados. Ni hamalau urtetan edo, ETAKoa izan nintzen. Gero utzi egin nuen, felipadaren kontra eta marxista joerakoekin ez nentorrelako bat.

ETAren lehen asanbladatik, sozialismo askatu, autogestiozko eta humanista baten alde azaldu izan naiz, faszismo eta komunismoen kontra, bien artean diferentzia eginez, noski. Eta hau ez diot nik orain, orduko programa irakurri besterik ez dago.

Frente Nazional baten alde ere beti egon izan naiz, bai lehen eta bai orain. ETAKoa izan nintzen luzaro, eta orain

resak zaintzea baldin bada, ni ez naiz sozial-demokrata. Bestalde, lotsatzen hastekotan, marxismo-leninismoak ere baduke zertaz lotsa izan. Stalinismoa, Berlineko hesia, Praga, Budapest, Dantzic, juduen diskriminazioa, Rusia barruko barne-pasaportea, politik-psikiatrikoak etab, marxismo-leninismo horren barruan suertatu dira. Stokholmek ez du jendea bildurtzen, Moskuk baizik.

Frantzia, esaterako, Andre Glusman, Edgar Morin eta beste, 69ko maiatzaren erreboluzioko leaderrak izan zirenetakoak, potroetaraino daude, eta ezker berri baten bilakuntza ari dira. Orobat, Fougeyrollas, Maurice Clavel, Sartre, Victor, Jean M. Benoist etab., zentzu batean antikomunistak dira, ez soviet zaleak.

FRENTE NAZIONALA

● Zertan dugu zuk horren sarri proposatu izan duzun Frente Nazional hori?

—Frente Nazional horretan alderdi eta mugimendu abertzale guztiek hartu behar dute parte, hau da, PNV, ETA biek, EHAS, LAIA, EZKER BERRIA, ESB, ELA, LAB eta LAK direlakoak.

● Eta Euskal Herrian ari diren beste hoik, PSOE, PCE, MCE, ORT eta beste?

—Katalanek asmatu zuten «sukursalista» hitza, eta egia esan, ondo dagoen izena, zentral baten esanak betetzen saiatzen diren sukursalak direnez

gero. Esanak esan, bistan da hoiema eta merkaturia Espainia dela eta ez Euzkadi. Eta ez naiz inor mesprexatzen ari, konstatazio bat egiten baizik.

● Hala ere, hor daude, eta indar bat dute Euskal Herrian. Hoik kontutan ez hartzea «chauvinismo» ez ote?

INDARTSUA ALDEKO KONZESIOAK

—Indarrak badutela ezin uka, noski. Baina uste baino gutiago, agian. Euskal Herriko problematikaz baliatzen ari dira, eta honek badu bere izena: oportunismoa.

Bestetik, Euskal Herriari buruzko konzesioak egiten ari dira, eta horren indartsu balira ez lukete egingo. Konzesioak ez dira gizajoaren alde egiten, indartsuaren alde baizik.

● Noizko KAS eta ESB-ren arteko batasuna?

—Taktika mailan ezagun da KAS eta ESB-ren arteko iritzi desberdina. KAS-ek, alderdi politikoak eta talde harmatuak biltzen ditu bere barruan. Bistan da ezin estatuk ez dezakeela horrelakorik onar, estatu burgesa nahiz komunista izan. EHAS-ek bestalde, estatu mugaren arazoa ez du zuhurki planteatzen, eta hoik guzti hoik atxakia onak dirateke klandestinitaterik irten ez ahal izateko.

MAXIMALISMOAK UZTEKO GARAIA

Guk uste dugu, ordea, une inporta-

te batetan bizi garela, denbora guti da goela, eta momentu honetan maximalismoak alde batera utzi behar ditugula.

● KAS beste ikuspegi batez oraintsu agertu bide da jendaurrean Iruinean...

—Antza denez, politiko-militarrak ohartu dira, militarrek arrazoi zutela, politika eta burruka harmatua ez direla nahasi behar, alegia. Badirudi ere, ETA PM alderdi politiko bilakatzen ari dela.

PERTUR-EN ASMOA



Asmoa ez da berria. Perturrek horren berri eman zidan duela zenbait hilabete Baionan. Langileen alderdi marxista abertzale bat eratzeke asmotan ari zen, nolabaiteko euskal alderdi komunista bat, guztiz klase posizio batez.

● Euskal Alderdi komunista hori eratuko balitz non geratuko litzateke LAIA?

—LAIA eta «pemekoak» oso hurbiletik ari dira. Antzeko bidea daramate, bai, baina ez dira norbait elkarrekin ondoegi konpontzen. Neurri batetan ulergarri dateke, biok baitira ETA-ren seme. LAIA-ren etena oraintsukoa da oraindik, eta gauzek denbora behar dute bere senera itzultzeko.

● KASen abiadura berri honekin euskal biltzarre bion batasuna erraztuko al da?

—Noski. Iruineko agerpenaren ondotik, badirudi KAS eta ESB elkarren-



ULMA S. COOP.

ETXAGINTZARAKO ETA OBRETARAKO
MAKINAK

Ulma, S. Coop. Apto. 13

Urrut. 78 14 45

OINATI (Gipuzkoa)



gandik hurbilago daudela orain, eta bide honetan gero eta posibleago dela elkarrizketa onuragarri batzu lantzea.

—Hala izan dadila. Herri abertzale arrunta poztuko da, eta baita hobeto ulertuko ere.

Geure artean dugu iadanik Txillardegi. Ezein gutik suposa zezakeen honelakorik due-la urtebete. Ezta berak ere iaz, aurtengo honetan GARAIA deritzan aldizkari batetan lan egingo zuenik, eta ezta Do-

nostiako EUTG-en Euskal Fonetika delako asignatura emango zuenik ere.

Baina berak amaitzeko esan zidanez: «Gaur, nere postua hemen dago».

TXIMIST

DA PONTEKO IZENA...

Bloques URA

Urgaindurako argitzetan azkeneko berriak etengabeko Tximist-indarraren tresneriak, akumuladore alkalino moldeekin.

VILTABLOC

Akumuladore tekniketan egiazko bira.

CELAYA ENPARANTZA y GALDOS, S. A.

« C E G A S A »

Urrut. 26 17 00

OINATI (Guipuzkoa)

GASTEIZ (Araba)